Si el Partido Popular y el Partido Socialista desean que la Ertzaintza tome parte en esas tareas, al menos institucionalmente –políticamente, habría que ensayar otras vías o llevaría su tiempo, pero institucionalmente–, ¿por qué no la reconocen como una policía integral? ¿Por qué no está la Ertzaintza en esa estructura denominada CITCO (Centro de Inteligencia contra el Terrorismo y el Crimen Organizado)? ¿Por qué no está ahí la Ertzaintza? Porque el Partido Popular ha dicho que no, que no ha de estar, que no hace falta que esté. Por lo visto, es una especie de guardia

udaltzaingo bat izan beharko du, nonbait, Ertzaintzak.

Ez, polizia integrala da, eta ez da onartzen polizia integral bezala. Zergatik Ertzaintzak ezin du jo Europar dauden informazio-iturrietara, informazio polizial horietara? Zergatik ezin du jo? Ez zaiolako aitortzen.

Gero, hori bai, esaten da: "Arriskua 4. maila-koa baldin bada eta bilera egin behar baldin bada, deituko dizuegu". Eta atzo arratsaldean deitu eta gaur goizean bilera bat, informatzeko Jaungoikoak daki zertaz. Zergatik hemen jihadismoaren aurka burutu diren operazio polizialez ez da informatu, ez aurretik eta ez ondoren! Hemen bertan egin direnez! Orduan, Ertzaintza aintzakotzat hartzen da polizia integral bezala, bai ala ez?

Horiek dira niretzat galderak eta arrazoiak. Bat, argazkia. Bi, irakurri zer esaten duzuen zuen proposamenaren motibazioan, zergatik, besteak beste, aipatzen dituzue, modu okerrean, Ajuria Eneko Itun bezala ezagutzen den hori eta baita ere paktu antiterrorista. Hor gu ginen helburu; terrorismoa ere bai, baina politikoki gu ginen helburu. Eta guk nahi duguna da kontaketa zuzena (orain *relato* hitza oso modan dago, ez?), kontaketa zuzena historian eta iragan hurbilean zer gertatu den.

Eta etorkizunean elkarren arteko konfiantza irabazteko asmorik edo gogorik baldin badago, has dadila Espainiako Gobernuak Ertzaintzari aitortu beharrekoa aitortzen. Eta gero, agian arduradun politikoen atea jotzen baldin badu, agian beste arrazoiren bat izango du historia honetan aurrean duen hori konbenitzitu ahal izateko.

LEHENDAKARIAK: Eskerrik asko, Egibar jauna.

Erantzunen txandara pasatuz, Llanos andrea, zurea da hitza.

LLANOS GÓMEZ andreak: Gracias de nuevo, señora presidenta.

Al portavoz de Bildu, medio minuto. Y medio minuto para decir que una vez más la intervención ha sido vergonzosa. Vergonzosa.

Para no condenar el terrorismo de ETA, ustedes han aludido a la sempiterna teoría del conflicto. Para no condenar el terrorismo yihadista, nos ha hecho usted aquí un tratado del mundo árabe. ¿Pero cuál es la conclusión? Que ustedes ni condenan el terrorismo de ETA ni condenan el terrorismo yihadista. Y esa teoría que usted ha planteado aquí vaya y explíquesela a los familiares de las 130 víctimas de París, a ver si la entienden.

municipal; con diferente boina pero, por lo visto, la Ertzaintza ha de ser una guardia municipal.

Pues no, se trata de una policía integral, que no es reconocida como policía integral. ¿Por qué la Ertzaintza no puede recurrir a las fuentes de información europeas, a esas informaciones policiales? ¿Por qué no puede? Porque no se le reconoce.

Eso sí, a renglón seguido, se añade: "Si el riesgo alcanza el nivel 4 y resulta conveniente reunirse, se les convocará". Y así se efectúa la convocatoria una tarde y a la mañana siguiente se realiza la reunión, para informar sobre Dios sabe qué. Porque de las operaciones policiales contra el yihadismo que se han llevado a cabo aquí no se ha informado, ni antes ni después. ¡De las operaciones desarrolladas aquí mismo! En resumidas cuentas, ¿se toma en consideración a la Ertzaintza como policía integral, sí o no?

Esas son mis preguntas y mis razonamientos. Primero, la foto. Segundo, léanse lo que viene a decir la exposición de motivos de la propuesta, porque, entre otras cosas, mencionan ustedes, erróneamente, el denominado Pacto de Ajuria Enea y también el pacto antiterrorista. Del cual éramos nosotros el blanco; también el terrorismo, pero políticamente se nos colocaba a nosotros la diana. Y lo que deseamos nosotros es que se haga un relato (ahora que esta palabra, *relato*, está tan de moda, ¿no?) correcto, un relato correcto de lo acontecido en la historia y en el pasado reciente.

Y si existe voluntad o deseo de restaurar en el futuro la mutua confianza, que comience el Gobierno de España por reconocer a la Ertzaintza lo que le ha de reconocer. A partir de ahí, si ha de llamar a la puerta de los responsables políticos, quizás cuente con otros argumentos para convencer a su interlocutor acerca de esta cuestión.

La **PRESIDENTA:** Muchas gracias, señor Egibar.

En turno de réplica, tiene usted la palabra, señora Llanos.

La Sra. **LLANOS GÓMEZ:** Eskerrik asko berriro ere, presidente andrea.

Bilduko bozeramaileari, minutu erdia. Eta minutu erdia esateko beste behin ere zure mintzaldia lotsagarria izan dela. Lotsagarria.

ETAren terrorismoa ez gaitzesteko erabili ohi izan duzue zuek betiere gatazkaren teoria. Eta terrorismo yihadista ez gaitzesteko atera diguzu zuek hemen arabiar munduari buruzko tratatu bat. Baina zein da ondorioa? Zuek ez duzuela ETAren terrorismoa gaitzesten eta ez duzuela terrorismo yihadista gaitzesten. Eta zuek hemen aurkeztu diguzun teoria hori zoaz eta esplika iezaezu Parisko 130 biktimen familiartekoei, ea ulertzen dizuten.



Decía el señor Pastor que no veía la utilidad de esta iniciativa. ¡Pues mire si está dando de sí! Yo creo que sí es útil, porque siempre es útil combatir el terrorismo.

Y usted decía que alababa mi tesón. Mire, con tesón es como la sociedad vasca ha conseguido acabar con el terrorismo. Con tesón, con no bajar nunca la guardia, con no bajar nunca los brazos. Y llama la atención que parezca que usted ahora baja los brazos a esa unidad, porque ha dedicado más tiempo a criticar la oportunidad de la presentación de mi iniciativa, es decir, de un partido que está claramente a favor de la unidad de los demócratas contra el terrorismo, que a criticar a aquellos que quieren ponerse de perfil, y que parezca que no ven tan clara esa unidad.

¿El tiempo? Ha pasado un mes y pico porque ha habido un parón en esta Cámara. Pero es que da igual. En esta Cámara no se pudo consensuar una condena, cosa que en otras cámaras sí se hizo. Aquí tardamos 11 días, y al final hubo una declaración de la presidenta. Fuimos incapaces. Y creo que en cualquier ocasión es bueno condenar el terrorismo, es bueno poner sobre la mesa la defensa de la libertad y de la democracia, y la defensa de los valores democráticos. Siempre.

Lo que pasa es que en usted llama la atención, como le decía, su cambio de actitud, y me habla a mí de estrategia. En ese cambio de actitud sí que hay estrategia, y eso no es serio, señor Pastor, eso no es serio. Quizás porque ahora ustedes están intentando llegar a un acuerdo con partidos políticos que no están a favor de ese pacto antiyihadista, a ustedes les interesa más no ser tan contundentes. Eso sí es estrategia, señor Pastor. Eso sí es estrategia, y lo que no es, desde luego, es serio.

Y con relación al Partido Nacionalista Vasco, las excusas de siempre, de verdad. ¡Mire si me lo he leído! ¡Es que lo tengo aquí!

Y usted habla de que el Pacto de Ajuria Enea no era contra el terrorismo. Pues para no ser para combatir el terrorismo, en el segundo párrafo: "El combate contra el terrorismo es, por encima de todo, el combate...". En el segundo párrafo ya se menciona.

En el primer punto del acuerdo: "El Estado democrático de derecho tiene su pilar básico en la soberanía de la voluntad popular. Este Parlamento rechaza la utilización de la violencia tal y como viene produciéndose en Euskadi". Oiga, si no era para ir contra el terrorismo... Y, es más, después conmina –se lo podía leer entero– a que sea el Gobierno Vasco el que se ponga a la cabeza en esa acción contra el terrorismo. Ahora, si usted ahora le quiere dar otra interpretación, es muy libre de hacerlo. Excusas.

Pastor jaunak esaten zuen ez zuela ikusten ekimen honen baliagarritasuna. Bada, begira zenbat ematen ari den! Nik uste dut baliagarria dela, beti delako baliagarria terrorismoaren auka borroka egitea.

Eta esaten zenuen nire irmotasuna txalotzen zenuela. Begira, irmotasunarekin lortu du euskal gizarteak terrorismoa desagerraraztea. Irmotasunarekin, lasaierian erori gabe, inoiz etsi gabe. Eta deigarria da zuk orain, dirudienez, etsi nahi izatea batasunari dagokionez, denbora gehiago eman baituzu nire ekimena aurkezteko une egokia ote zen kritikatzeko, hau da, terrorismoaren aurka demokraten batasunaren alde argi eta garbi dagoen alderdi baten ekimena kritikatzeko, gaiari iskin egin nahi diotenak kritikatzeko baino, batasun hori ez duzuela horren argi ikusten adierazi nahirik bezala.

Denbora-kontua? Hilabete eta koska joan da Legebiltzar honetan etenaldi bat izan dugulako. Baina berdin zaio. Legebiltzar honetan ezin izan zen gaitzespen bat adostu; beste ganbera batzuetan, berriz, egin ahal izan zen. Hemen, 11 egun behar izan genituen, eta azkenean presidentearen adierazpena egin zen. Ez ginen gai izan. Nire ustez, edozein une egokia da terrorismoa gaitzesteko, egokia da hizpidera ekartzeko askatasuna eta demokraziaren defentsa eta balio demokratikoen defentsa. Beti.

Zugan deigarria egiten zait, ordea, lehen esaten nizun bezala, zure jarrera-aldaketa, eta estrategia aipatuz zatozkit zu niri. Jarrera-aldaketa horretan bai dagoela estrategia, eta hori ez da gizalegezkoa, Pastor jauna, ez da gizalegezkoa. Beharbada orain akordioak egin nahian ari zaretelako jehadismoaren aurkako itun honekin bat ez datozen alderdi politikoekin, interesatzen zaizue horren gogorrak ez izatea. Hori bai dela estrategia, Pastor jauna. Hori bai dela estrategia eta ez da, alajaina, batere gizalegezkoa.

Eta Euzko Alderdi Jeltzaleari dagokionez, betiko aitzakiak, bai, benetan. Begira nola irakurri dudant! Hementxe daukat eta!

Eta esaten duzu zuk Ajuria Eneko Ituna ez zela terrorismoaren aurkako. Bada terrorismoari aurre egiteko ez bazen, hara zer dioen bigarren paragrafoan: "Izuekintzaren aurkako borroka, gauza guztien gainetik, arrazoiaren...". Bigarren paragrafoan aipatzen da jada.

Eta hitzarmenaren lehen puntuan esaten da: "Askatasunezko boto-emanketaz aditzera emandako herritarren nahiaren bidezko agintea du funtsezko oinarri lege-bidezko demokrazia-Erresumak. Horren ondorioz, Legebiltzar honek Euskadin erabiltzen den izuekintzaren erabilera gaitzetsi egiten du". Aizu, hori ez bazen terrorismoaren aurka joateko... Eta, gehiago oraindik, ondoren Eusko Jaurilaritza hertsatzen du –osorik irakur diezazuket– terrorismoaren aurkako jardura horren aitzindari izan dadin. Hori bai, zuk bestelako interpretazioaren bat nahiago baduzu, zeure eskubidean zaude. Aitzakiak.

Con relación a la Ertzaintza. Es que no está la Ertzaintza, ni está la Guardia Civil, ni están los Mossos d'Esquadra. A la Interpol, a esos órganos, va la Policía Nacional, y después hay un órgano en el Ministerio del Interior, que es el que se encarga de transmitir esa información. Es así de sencillo. O sea, que no me ponga como excusa que es que la Ertzaintza no accede a la información, porque accede directamente la Policía Nacional, que es quien después se la da a los demás.

Y tampoco me ponga como excusa el tema de la prisión. Porque le diré qué es lo que pone exactamente... Oiga, ¿qué me está diciendo? ¿Que no les pongamos penas, porque, como se van a suicidar, entonces para qué, no? Es que es eso lo que ha dicho, es que es así de kafkiano, señor Egibar.

Lo que pone en el segundo punto es que le será siempre aplicable la máxima pena privativa de libertad recogida en el Código Penal. ¿Y qué me quiere decir usted ahora? ¿Que para el Partido Nacionalista Vasco los terroristas no tienen que tener la máxima pena recogida en el Código Penal? ¿Que el delito de terrorismo no tiene que tener la máxima?

Porque aquí no pone prisión permanente revisable. No, dice la máxima pena que en ese momento esté. Cuando eran 30 años, 30 años; si ahora es prisión permanente revisable... Pero si se cambia el Código Penal, se cambia. Entonces, ¿usted qué me quiere decir? ¿Que, para el Partido Nacionalista Vasco, al terrorismo no hay que aplicarle la máxima pena que contemple el Código Penal? ¿Que no es un delito de suficiente gravedad para eso, cuando es un delito que trata de minar las bases de la democracia?

Y tenía más cosas, pero no me da tiempo...

LEHENDAKARIAK: Amaitu, mesedez.

LLANOS GÓMEZ andreak: Voy acabando, señora presidenta.

Hablaba usted de libertad y seguridad. ¡Claro que muchas veces, en pos de garantizar la seguridad, totalmente atacada, no por enemigos imaginarios, uno tiene que prescindir de espacios de libertad! Y nos lo dice a nosotros, que durante muchos años hemos tenido que ver cercenada nuestra libertad y la de nuestras familias para poder tener seguridad.

Nada más, y muchas gracias.

LEHENDAKARIAK: Eskerrik asko, Llanos andrea.

Mistoa-UPyD. Maneiro jauna, zurea da hitza.

Ertzaintzari dagokionez. Izan ere, ez dago Ertzaintza, ez dago Guardia Zibila, eta ez daude Mossos d'Esquadra ere. Interpolera, eta horrelako erakundeetara, Polizia Nazionalea joaten da, eta ondoren bada erakunde bat Barne Ministerioan, informazio hori bideratzeaz arduratzen dena. Horren sinplea da. Beraz, ez iezadazu aitzakiatzat ipin Ertzaintzak ezin duela informazioa eskuratu, Polizia Nazionalea delako informazioa zuzenean eskuratzen duena eta gero gainerakoei ematen diena.

Eta ez iezadazu ezta ere aitzakiatzat ipin espetxeratzearen gaia. Izan ere esango dizut zer ipintzen duen zehazki... Aizu, zer esan nahi didazu? Ez diegula zigorrik ezarri behar, beren buruaz beste egitera doazelako eta, beraz, alferrik izango delako, ez? Horixe esan baituzu, hain da kafkianoa esan duzuna, Egibar jauna.

Bigarren puntuak esaten du beti ere aplikagarria izango zaiela Zigor Kodeak aurreikusten duen espetxeratze-zigorrik handiena. Eta zer esan nahi didazu zuk orain? Euzko Alderdi jeltzalearen iritzian terroristek ez dutela jaso behar Zigor Kodeak aurreikusten duen zigorrik handiena? Terrorismo-delituak ez duela zigor handiena jaso behar?

Izan ere, hemen ez da aipatzen espetxeratze iraunkor berraztergarria. Ez, esaten du une horretan legokeen zigorrik handiena. 30 urte zirenean, 30 urte; orain espetxeratze iraunkor berraztergarria bada... Baina Zigor Kodea aldatzen bada, aldatu egingo da. Beraz, zer esan nahi didazu? Euzko Alderdi Jeltzalearen ustez terrorismoari ez zaiola aplikatu behar Zigor Kodeak aurreikusten duen zigorrik handiena? Ez dela hainbesteko larritasuna duen delitua, nahiz eta demokraziaren oinarriak suntsitu nahi dituen delitua izan?

Eta banituen gehiago esateko, baina ez dut denborarik...

La **PRESIDENTA:** Concluya, por favor.

La Sra. **LLANOS GÓMEZ:** Amaitzen ari naiz, presidente andrea.

Askatasuna eta segurtasuna aipatzen zenituen. Bai noski, askotan, segurtasuna bermatu ahal izateko, bortizki eraso denean, eta ez alegiazko etsaiek eraso, askatasun-esparruetan amore eman beharra dago! Eta guri esaten diguzu hori, urte askotan segurtasuna eduki ahal izateko geure askatasuna eta geure familien askatasuna murriztuta eduki behar izan dugunoi.

Besterik ez, eta eskerrik asko.

La **PRESIDENTA:** Muchas gracias, señora Llanos.

Grupo Mixto-UPyD. Señor Maneiro, tiene usted la palabra.

MANEIRO LABAYEN jaunak: Gracias, presidenta.

Por ser suave, diré que he observado cierta hipocresía en los planteamientos del Partido Nacionalista Vasco y de EH Bildu. Es decir, no han dicho toda la verdad de lo que piensan y no han explicado sus verdaderas razones para no apoyar el pacto antiyihadista. No han dicho toda la verdad, y lo que básicamente han hecho ha sido utilizar excusas, también para tapar sus propias vergüenzas en relación con esta cuestión.

Una cosa es decir que el pacto antiyihadista no puede convertirse en una simple foto, cosa que nosotros compartimos; una cosa es decir que el pacto antiyihadista es perfectible y puede mejorarse; una cosa es decir que el pacto antiyihadista no incorpora una serie de reivindicaciones o planteamientos que, en el caso del Partido Nacionalista Vasco, pudieran hacer, pero otra cosa es no plantear ningún tipo de alternativa y únicamente ver los puntos que no comparten de ese pacto antiyihadista.

Nosotros lo hemos explicado perfectamente. Ese pacto es perfectible, se puede mejorar. Hay que incorporar medidas concretas, presupuestos, medios materiales y humanos, etcétera; ir a las causas, fomentar la educación y los valores humanos, actuar en el terreno, mejorar todo lo posible la democracia. Efectivamente, todo eso hay que hacer, pero creo que este pacto antiyihadista es un acuerdo de mínimos del que ningún partido democrático a día de hoy debería salir. Cualquier partido democrático debería entrar.

Y me ha dado la sensación, en el caso del Partido Nacionalista Vasco, de que ha utilizado simples excusas para no explicar su verdadera posición. Porque, si no, lo que tiene que hacer el Partido Nacionalista Vasco, además de criticar este pacto, es explicar en concreto qué es lo que haría el Partido Nacionalista Vasco para hacer frente al terrorismo yihadista. Que explique cuáles serían las medidas que este partido incorporaría.

Ya sabemos cuál ha sido la aportación de EH Bildu contra el terrorismo, en concreto contra del terrorismo de ETA, durante largos años; su aportación ha sido apoyarlo. En el caso de ustedes, ¿cuál es su estrategia? ¿Cuáles son sus medidas para incorporar a ese pacto antiyihadista?

Porque se ha hablado de la prisión permanente revisable. Pero es que la prisión permanente revisable no está habilitada como consecuencia de la firma del pacto antiyihadista; la prisión permanente revisable existe en cuanto está recogida en el Código Penal. En cuanto se modifique ese Código Penal, desaparece. Por lo tanto, el pacto yihadista lo único que hace, como aquí se ha dicho, es decir que a los terroristas se les aplicará la máxima pena recogida en el Código Penal. Por lo tanto, esta es una excusa.

El Sr. **MANEIRO LABAYEN**: Eskerrik asko, presidente andrea.

Gozo hitz egiteko, esan behar dut hipokrisia pittin bat nabaritu dudala Euzko Alderdi Jeltzalearen eta EH Bilduren planteamenduetan. Hau da, ez dute osorik esan zer pentsatzen duten eta ez dituzte benetako zergatiak aurkeztu jihadismoaren aurkako itunarekin bat ez egiteko. Ez dute egia osoa esan eta, funtsean, aitzakiak erabili dituzte gai honen inguruan beren lotsaizunak estaltzeko batik bat.

Gauza bat da esatea jihadismoaren aurkako ituna ezin dela geratu argazki huts batean, geuk ere esaten dugu hori; gauza bat da esatea jihadismoaren aurkako ituna hobetu daitekeela, hobetu litekeelako; gauza bat da esatea jihadismoaren aurkako itunak ez dituela jasotzen zenbait eskakizun edo planteamendu, kasu honetan Euzko Alderdi Jeltzaleak egin ditzakeenak; baina bestelako kontua da inolako alternatibarik ez aurkeztea eta jihadismoaren aurkako itun horretan onartzen ez diren puntuak bakarrik aintzakotzat hartzea.

Argi eta garbi azaldu dugu guk. Ituna hobetu daiteke. Gehitu behar zaizkio neurri zehatzak, aurrekontuak, baliabide material zein giza baliabideak, eta abar; sustraietara joan behar da, hezkuntza eta giza balioak sustatu behar dira, sorlekuetan lan egin behar da, demokrazia ahalik eta gehien hobetu behar da. Noski baino noskiago, hori guztia egin behar da, baina iruditzen zait jihadismoaren aurkako itun hau gutxieneko akordio bat dela eta gaur egun ezin alderdi demokratikok ez lukeela kanpoan geratu behar. Edozein alderdi demokratikok barnean egon behar luke.

Eta iruditu zait, Euzko Alderdi Jeltzalearen kasuan, aitzaki merkeak erabili dituela bere benetako jarrera ez azaltzeko. Izan ere, bestela, itun hau kritikatu ondoren, Euzko Alderdi Jeltzaleak zehazki azaldu behar luke zer egingo lukeen jihadismoaren terrorismoari aurre egiteko. Azaldu dezala zer neurri ezarriko lituzkeen Euzko Alderdi Jeltzaleak.

Jakin badakigu zein izan den EH Bilduren ekarpena terrorismoaren aurka, zehazkiago ETArek terrorismoaren aurka, urte askotan; hari laguntzea izan da Bilduren ekarpena. Zuen kasuan, zein da zuen estrategia? Zein dira zuek jihadismoaren aurkako itun honetara ekarriko zenituzketen neurriak?

Espetxeratze iraunkor berraztergarriaz hitz egin baita. Baina espetxeratze iraunkor berraztergarria ez da sortzen jihadismoaren aurkako ituna onartzearen ondorioz; Zigor Kodean jasota datorrelako dago hori espetxeratze iraunkor berraztergarria. Zigor Kode hori aldatzen den unean, desagertu egingo da. Beraz, jihadismoaren aurkako itunak esaten du, hemen jada azaldu den bezala, Zigor Kodeak aurrekusten duen zigorrak handiena ezarriko zaiela, besterik gabe. Beraz, hori aitzakia baino ez da.

Como excusa también es señalar que la Ertzaintza se encuentra subordinada. Es una excusa. Esto no puede justificar que un partido democrático no se incorpore a ese pacto antiyihadista y que plantee dentro de ese pacto medidas concretas que puedan ir en la línea de lo que nosotros planteábamos: hacer todo lo posible no solamente para condenar este terrorismo, sino medidas a corto, a medio y a largo plazo para hacerle frente. Pero el Partido Nacionalista Vasco no ha planteado ninguna medida concreta.

Y, en el caso de EH Bildu, aparte del relato histórico que nos ha realizado el señor López de Munain, aparte de hablar de Arabia Saudí, aparte de hablar del colonialismo, aparte de hablar de todos los errores que se han cometido durante décadas en esa zona –eso es cierto–, habrá que plantear alguna medida concreta para hacer frente a ese terrorismo aquí y ahora, es decir, en el corto plazo y en el medio plazo.

¿O cuál es su alternativa? ¿Corregir la historia? ¿Corregir todos los errores que se han cometido? Se puede hacer. Pero, además de eso, supongo yo que habrá que hacer algo más. Sin embargo, EH Bildu se queda fuera voluntariamente, también porque es coherente en relación con su pasado reciente y su posición en relación con el terrorismo de ETA.

Por lo tanto, altura de miras, más allá de que podamos ser críticos con algunos puntos de ese pacto, más allá de que podamos considerar que se queda corto, más allá de que pueda haber sido utilizado en algún momento como una simple foto propagandística. Yo creo que la obligación de cualquier partido democrático es incorporarse a él y hacer las aportaciones que cada uno considere para perfeccionarlo.

El terrorismo yihadista nos incumbe a todos. No es un tema menor, no es cuestión solo de solidaridad, sino de defender nuestros propios valores, nuestra propia democracia, nuestra legalidad vigente. Y hacerlo, por supuesto, con todas las garantías y con el máximo respeto a los derechos humanos.

Esa es, por lo tanto, nuestra posición como partido político democrático. Hay que sumarse a ese pacto y tratar de perfeccionarlo. Pero no valen excusas.

LEHENDAKARIAK: Eskerrik asko, Maneiro jauna.

Euskal Sozialistak taldearen ordezkaria. Pastor jauna, zurea da hitza.

PASTOR GARRIDO jaunak: Con su permiso, desde el escaño.

No tenía intención de intervenir, porque creo que todo lo que había que decir ya estaba dicho. Pero no puedo dejar de contestar determinadas afirmaciones de la señora Llanos, por inconsecuentes y por injustas.

Ertzaintza menpekotasunean aurkitzen dela esatea aitzakia den bezalaxe. Aitzakia da. Horregatik, alderdi politiko demokratiko bat ezin da geratu jihadismoaren aurkako itun horri onespina eman gabe, eta itun horren barnean planteatu ditzake neurri zehatzak guk geuk planteatzen genuenaren ildoan joan daitezkeenak: ahal den guztia egin, ez soilik terrorismoa gaitzesteko, baita hari aurre egiteko neurriak, epe motz, ertain eta luzekoak. Baina Euzko Alderdi Jeltzaleak ez du inolako neurri zehatzik proposatu.

Eta EH Bilduren kasuan, López de Munain jaunak eskaini digun kontakizun historikoaz gain, Saudi Arabiari buruz hitz egiteaz gain, kolonialismoaz hitz egiteaz gain, zona horretan hamarkadatan egin diren –eta benetakoak diren– hutsegite guztiez hitz egiteaz gain, neurri zehatzen bat proposatu beharko du terrorismo horri hemen eta orain aurre egin ahal izateko, alegia, epe motzera eta epe ertainera zerbait egiteko.

Edo zein da zure alternatiba? Historia zuzentzea? Egin diren hutsegite guztiak zuzentzea? Egin liteke. Baina iruditzen zait, horrez gain, beste zerbait ere egin beharko dela. Halaz eta guztiz ere, EH Bildu kanpoan geratzen da, nahita, eta baduelako horrek koherentzia bere iragan hurbilarekin eta ETAREN terrorismoari buruz eduki duen jarrerarekin.

Beraz, ikuspegi-zabaltasuna behar da, itun horren edukietako batzuei kritika egingo bagenie ere, motz geratzen dela uste badezakegu ere, uneren batean propagandarako argazki huts moduan erabili badute ere. Nik uste dut edozein alderdi demokratikok bat egin behar duela itun horrekin, eta bakoitzak egin ditzala hura hobetzeko beharrezko deritzen ekarpenak.

Terrorismo yihadista denon ardurua da. Ez da nolanhiko gaia, ez da soilik solidaritate-arazoa, baizik eta geure balioak, geure demokrazia, indarrean ditugun geure legeak defendatzea da kontua. Eta, noski, hori guztia berme guztiekin egitea, eta giza eskubideen errespeturik handienarekin.

Beraz, hori da gure jarrera, alderdi politiko demokratikoa garelako. Itunarekin bat egin behar da eta hura hobetzen saiatu. Baina aitzakiek ez dute balio.

La **PRESIDENTA:** Muchas gracias, señor Maneiro.

El representante del grupo Socialistas Vascos. Señor Pastor, tiene usted la palabra.

El Sr. **PASTOR GARRIDO:** Eserlekutik, zure baimenarekin.

Ez nuen hitza hartzeko asmorik, esan beharreko guztia esanda zegoela iruditzen zitzaidalako. Baina ezin ditut erantzunik gabe utzi Llanos andrearen baieztapenetako batzuk, inkontsekuentek eta bidegabekak direlako.

Yo no hubiera hecho hoy la intervención que he hecho si no hubiera sido porque ayer mismo todo un ministro del Gobierno de España usó un tema que él mismo y el Gobierno califican como cuestión de Estado para ir a examinar, a exacerbar, a escenificar diferencias respecto a esa política de Estado con todas las cancillerías europeas. Eso es una sinvergonzada, eso es indigno de un ministro de España.

Y eso, por desgracia, nos vuelve a traer a la memoria lo indigno para lo que ustedes también usaron el pacto anti-ETA en su día. Todas las medidas antiterroristas las utilizaron en contra nuestra en cuanto tuvieron ocasión. Nosotros, que también sufrimos, como ustedes, esa falta de libertad tuvimos además que soportar los ataques del Partido Popular acusándonos de ir en contra de la vida, de ir en contra de la libertad, de ir en contra de la decencia, de traicionar a los muertos, de tener las manos manchadas de sangre, en toda una tribuna del Congreso.

Eso es lo que no se puede hacer, señora Llanos. Cuando se pide unidad, cuando se pide responsabilidad, cuando se pide sentido de Estado, después hay que demostrarlo con los hechos. Y ustedes, permítame que le diga y lo lamento mucho, han hecho justamente lo contrario de lo que es una política de Estado, por mucho que usted se desgañite después en esa tribuna con ese nombre en sus labios, porque suena a sarcasmo, después de ver los hechos de todo un ministro del Gobierno de España hace escasamente 24 horas.

Y quería terminar haciéndole un ruego al Partido Nacionalista Vasco. Que, puesto que comparten una buena parte (casi todas las medidas concretas que recoge ese pacto antiyihadista), si no es hoy, en un día lo más cercano posible reconsideren ustedes su postura y puedan sumarse a un pacto sobre un problema que nos afecta a todos, también a los vascos.

LEHENDAKARIAK: Eskerrik asko, Pastor jauna.

EH Bildu taldearen ordezkaria. López de Munain jauna, zurea da hitza.

LÓPEZ DE MUNAIN GANUZA jaunak: Eskerrik asko.

Sigo manteniendo todavía la ilusión de que cuando vamos a hablar de un tema concreto, podemos hablar de ese tema y no de cosas que ustedes traen a colación y que nada tienen que ver con dicho tema. En este caso, íbamos a hablar del yihadismo y nadie ha hablado del yihadismo, salvo aquí la persona que les está hablando.

No han dicho absolutamente nada. Las causas y las consecuencias, diciéndolo claramente, se la repampinflan, porque las únicas causas que han señalado son policiales. Pero es que las consecuencias, es

Ez nuen nik gaur egin dudan mintzaldia egingo atzo Espainiako Gobernuak kide den batek ez balu erabili gaia, berak eta bere Gobernuak estatu-gaitzat jotzen duten arazo hau hain zuzen, Europako kantzilertza guztien aurrean ezberdintasunak areagotzeko, gaitzotzeko eta antzetzeko estatu-politika horren esparruan. Lotsagabekeria bat da hori, Espainiako ministro batek egin ezin duena.

Eta horrek, zoritxarrez, gogorarazten digu berriro zein duintasun gutxirekin erabili zenuten bere garaian ETaren aurkako ituna ere. Neurri antiterrorista guztiak gure aurka erabili zenituzten aukera izan zenuen bakoitzean. Guk ere sufritu genuen, zuek bezala, askatasun-gabezia hori, baina, horrez gain, pairatu behar izan genituen Alderdi Popularraren erasoak, esanez bizitzaren aurka geundela, askatasunaren aurka geundela, gizalegearen aurka geundela, hildakoei traizio egiten ari ginela, eskuak odolez bustirik genituela, eta Kongresuko tribunan esan zen, gainera, hori guztia.

Hori ezin da egin, Llanos andrea. Batasuna eskatzen denean, erantzukizuna eskatzen denean, estatutua eskatzen denean, egintzen bitartez berretsi behar da hori ondoren. Eta zuek, esatea zilegi bekik eta saminez esan ere esaten dut, Estatu-politika litzatekeenaren kontra-kontrakoa egin duzue, gero zuk tribuna honetan kontzeptu hori hitzetik hortzera erabiltzen duzun arren, sarkasmoa dirudielako Espainiako Gobernuak ministro batek duela 24 ordu eskas zer egin duen ikusi eta gero.

Eta Euzko Alderdi Jeltzaleari erregu bat eginez amaitu nahi nuke. Jihadismoaren aurkako itun honek jasotzen dituen gehienetan ados daudenez (haren neurri zehatz gehienetan behintzat bai), gaur ez bada berandu gabe beste egunen batean berrikeria ezazue zuek ere zeuen jarrera, itunarekin bat egin ahal izateko, denoi, eta baita euskal herritarrei ere, dagokigun arazoa da eta.

La **PRESIDENTA:** Muchas gracias, señor Pastor.

El representante del grupo EH Bildu. Tiene la palabra el señor López de Munain.

El Sr. **LÓPEZ DE MUNAIN GANUZA:** Muchas gracias.

Geratzen zait oraindik itzaropena gai zehatz bati buruz hitz egitera gatozenean, gai horren inguruan arituko garela, eta ez zuek hizpidera ekartzen dituzuen eta gaiarekin zer ikusirik ez duten beste horietaz. Gaurkoan, jihadismoari buruz hitz egitera etorri gara, eta inork ere ez du hitz egin jihadismoaz, une honetan ari zaizuen hau izan ezik.

Ez duzue ezertxo ere esan gaiaz. Haren zergatiak eta ondorioak, argi eta garbi esanda, bost axola zuei, aipatu dituzuen zio bakarrak poliziari dagozkionak direlako. Baina ondorioak ere, hau da, arazoa

decir, cómo acabar con el problema, también son todas policiales.

Al menos nosotros sí hemos dado una serie de claves, que luego se las repito por si no las ha tenido antes a bien escribir y apuntarlas, para cuáles creemos nosotros y nosotras que son las soluciones.

EH Bildu evidentemente que está en contra del yihadismo. Pero también estamos en contra de ese pacto pseudofascista que ustedes han presentado. Evidentemente.

Pero es que eso no lo digo yo. Es que lo que está sucediendo en toda Europa, que además es el punto segundo de su enmienda de transacción... Sale hoy mismo todo un comisario de Derechos Humanos del Consejo de Europa –no un don cualquiera– advirtiéndome que vienen tiempos duros para los derechos humanos en Europa.

Critica a Hollande, y critica a Hollande porque las medidas que eran de excepcionalidad se han convertido en medidas permanentes. Y no solo eso, sino que dice, tal cual, y se lo leo: "Las situaciones de excepción tienen resultados limitados", es decir, los resultados que tienen todas sus políticas son absolutamente limitados, "pero los ataques a los derechos son grandes y permanentes".

La crítica que les hemos hecho, aparte de la crítica histórica para contextualizar de dónde viene el tema del yihadismo, de dónde viene el salafismo, de dónde viene el wahabismo, y, por supuesto, quiénes son a nivel internacional los cooperadores necesarios para que el wahabismo siga avanzando (y no solo en Próximo Oriente, sino también en Europa), habría que recordar cuáles son las circunstancias en las que está, por ejemplo, ahora mismo Bosnia.

Pero eso a ustedes les da exactamente igual. Les da exactamente igual la aparición del islamismo radical no solo en países de la órbita del Oriente Medio, sino en toda Europa, en toda África, con la invasión de Mali. A ustedes eso también les da igual, que un país haya invadido otro país, en este caso Mali, en contra de la legalidad internacional. Les da exactamente igual. Luego, con las consecuencias que pueda tener todo eso y que pueda acarrear atentados en Europa, con eso ya empezamos a hablar de otras cosas.

Pero es que no hablamos de absolutamente nada. Lo único que ustedes ponen encima de la mesa son recortes de libertades. En ningún momento van a las causas. Es decir, ¿por qué no hablan de que uno de los mayores exportadores de terroristas islámicos que van a combatir con el ISIS son europeos? ¿Habría que bombardear las ciudades de Londres o los guetos de Londres y Francia para acabar con el ISIS? ¿Habría que bombardear a esas personas? Esa es su solución: más policía, más armas.

nola desagerraraz litekeen, polizia-lana litzateke erabat zuentzat.

Guk, behintzat, aurreratu ditugu zenbait giltzari, gero berriro errepikatuko dizkizuedanak lehen ez badituzue idatziz jaso nahi izan, gure ustez konponbideak zein izan diren zehaztuz.

EH Bildu jihadismoaren aurka dago, noski. Baina zuek aurkeztu duzuen itun sasifaxista horren aurka ere bagaude. Jakina.

Baina ez naiz ni hori esaten duena. Izan ere, Europa osoan gertatzen ari dena, gainera erdibideko zuzenketaren bigarren puntuan datorrena... Gaur bertan, Europako Kontseiluko Giza Eskubideen komisiarioa bera agertu da –ez da hutsaren hurrengoasanez garai ilunak datozela giza eskubideentzat Europan.

Hollanderi egiten dio kritika, eta Hollanderi egiten dio kritika salbuespenezkoak omen ziren neurriak behin betiko neurri bihurtu dituelako. Eta ez hori bakarrik; honako hau ere esaten du, hitzez hitz irakurriko dizut: "Salbuespenezko egoerek emaitza mugatuak erdiesten dituzte", hau da, haren politika guztien emaitzak oso mugatuak direla, "baina eskubideei egin-dako erasoak handiak eta iraunkorrak dira".

Egin dizuegun kritika, alde batetik kritika historikoa izan da testuingurua argitzeko, jhadismoa nondik sortzen den, salafismoa nondik datorren, wahabismoa nondik datorren eta, noski, ea zein diren nazioarte mailan wahabismoa zabaltzearen funtsezko laguntzailerak; eta ez bakarrik Ekialde Hurbilean, baita Europan ere: esate baterako, komeniko litzateke une honetan Bosnian bizi den egoera gogora ekartzea.

Baina zuei bost axola dizue horrek. Bost axola dizue islamismo erradikala Ekialde Ertaineko herrialdeetan ez ezik Europa osoan, eta Afrika osoan agertu izanak, Malin sartu direnetik. Horrek ere bost axola dizue zuei, alegia, herrialde batek bestea, oraingoan Mali, inbaditu izana, nazioarteko legeria urratuz. Ez dizue batera axola. Gero, horrek ekartzen dituen ondorioekin eta Europara erakar ditzakeen atentatuekin, orduan bai hasten garela bestelako gauza batzuek arduratzen.

Baina hemen ez dugu deus ere aipatzen. Askatasunen murrizketa besterik ez duzue proposatzen zuek. Inoiz ere ez dituzue aintzakotzat hartzen zergatiak. Adibidez, zergatik ez duzue esaten ISISen alde borroka egitera joaten diren terrorista islamista horien esportatzaile handienetako bat Europa bera dela? Londres hiria edo Londresko eta Frantziako ghettoak bonbardatu egin behar ote lirateke orduan? Bonbardatu egin behar al dira pertsona horiek? Zuen konponbidea horixe da: polizia gehiago, arma gehiago.



¿Cuál es la solución para ustedes? ¿No sería una política social de integración? ¿No sería que no se creasen esos guetos? ¿No sería dejar de vender armas a Arabia Saudí? ¿No sería dejar de comprarles petróleo? ¿No sería romper las relaciones con Turquía, que también le compra petróleo al Estado Islámico?

Mientras tanto, ¿ustedes qué hacen? Todo lo contrario. Nos dicen que el resto de los grupos que no estamos dispuestos a firmar su pacto pseudofacista en contra de las libertades somos los que estamos a favor de yihadismo. Ni mucho menos. Ustedes les tendrán que explicar a las víctimas de las que he hablado sus fotos y las de los jefes de Estado con los jeques. Esas son las fotos que tienen que explicar.

Tienen que explicar también las de los ministros de Exteriores reuniéndose con el ministro de Exterior de Arabia Saudí, Catar, etcétera, dándose la mano y diciendo que son socios preferentes. Esas son las fotos que tienen que explicar ustedes a las víctimas. Cuando las armas del Estado español son vendidas a Arabia Saudí y esas armas acaban en manos de los mercenarios del ISIS o de cualquier otro grupo radical islamista, ustedes tendrán que explicar a las víctimas cómo han llegado esas armas hasta ahí.

De hecho, Al-Nusra, en Siria, se felicitaba y felicitaba al Gobierno francés de la venta de armas que este había realizado y de que ya le habían llegado. Le felicitaba Al-Nusra, que es la base de Al Qaeda en Siria; fueron parte de los que luego asesinaron en París.

Pero es que eso a ustedes les da exactamente lo mismo. Nos traen un debate que es simplemente un debate en contra de la libertad y de la ciudadanía, para meternos miedo. Y se lo sigo diciendo: ustedes lo único que quieren es meternos miedo a la sociedad, para que gastemos más en armas, para que tengamos menos derecho y para que no les podamos debatir absolutamente nada. Nos quieren callados, pero no nos van a tener callados.

¿Y quieren la solución? Dejen de financiar ustedes, todos ustedes, el yihadismo internacional. Dejen de darles dinero, dejen de comprarles petróleo y ahí tendrán una de las soluciones.

LEHENDAKARIAK: Eskerrik asko, López de Munain jauna.

Amaitzeko, Euzko Abertzaleak taldearen ordezkaria. Egibar jauna, zurea da hitza.

EGIBAR ARTOLA jaunak: Llanos anderea, garbi daukadana da Espainiako Gobernuak Ertzaintza aitortuko balu polizia integral bezala, Europako erakunde guzti horietan legokeela. Beraz, irizpide politiko bat dago ez egoteko. Eta niri ez aipatu momentu ho-

Non dago konponbidea zuen ustez? Ez al legoke gizarteratze-politika batean? Ez al legoke ghetto horiek ez sortzean? Ez al legoke Saudi Arabiari armarik ez saltzean? Edo hari petroliorik ez erostean? Ez al legoke Turkiarekiko harremana eteteen, hark ere petrolioa erosten diolako Estatu Islamikoari?

Bitartean, zertan ari zarete zuek? Kontra-contrakoa egiten. Esaten diguzue zuek askatasunen aurka adostu duzuen itun sasifaxista hori izenpetu nahi ez dugun gainerako taldeak garena yihadismoaren alde gaudenak. Baita zera ere. Zuek esplikatu beharko dizkiezue lehen aipatu dizkizuedan biktima horiei zertara datozen zeuok eta zeuen estatuburuek xekeekin ateratzen dituzuen argazkiak. Horiek dira esplikatu beharreko argazkiak.

Halaber esplikatu beharko duzue zer egiten duten Kanpo Arazoetako ministroek Saudi Arabiako, Qatarreko eta abarreko Kanpo Arazoetako ministroei eskua ematen eta lehentasunezko bazkideak direla esaten. Horiek dira biktimei esplikatu behar dizkizuden argazkiak. Estatu espainolak Saudi Arabiari armak saltzen dizkionean eta arma horiek gero ISISeko merzenarioen edo beste edozein talde islamista erradikalekoen eskuetan agertzen direnean, zuek azaldu beharko diezue biktimei nola iritsi diren arma horiek esku horietara.

Gogoan izan Siriako Al-Nusra pozik agertu zela eta Frantziako Gobernuak zoriondu egin zuela armak saltzeagatik, eta iritsi zitzaizkiela esaten zuela. Zorionak bidaltzen zituen Al-Nusra zen, Al-Kaedak Sirian duen adarra; haietakoak ziren gero Parisen hilketat egiten zituzten batzuk.

Baina bost axola dizue horrek zuei. Ekarri gaituzue eztabaida honetara, askatasunaren aurka eta herritarren aurka aritzeko, beldurra sartzen aritzeko, besterik ez. Eta berriro esango dizuet: zuek nahi duzuen gauza bakarra da gizarteari beldurra sartzea, armetan diru gehiago gasta dezagun, eskubide gutxiago eduki ditzagun eta ezin dezagun ezeri buruz eztabaidatu. Isilik egonarazi nahi gaituzue, baina ez gara isilik gertutuko.

Konponbidea nahi al duzue? Ez ezazue zeuok, zuek guztiok, finantzatu nazioarteko yihadismoa. Ez iezaiezue dirurik eman, ez iezaiezue petroliorik eros, eta konponbideetako bat bederen eskura izango duzue.

La **PRESIDENTA:** Muchas gracias, señor López de Munain.

Para finalizar, el representante del grupo Euzko Abertzaleak. Señor Egibar, tiene usted la palabra.

El Sr. **EGIBAR ARTOLA:** Señora Llanos, no me cabe la menor duda de que si el Gobierno español la reconociera como policía integral, la Ertzaintza estaría en todas esas instituciones europeas. Por lo tanto, existe un criterio político para que no esté. Y no me

netan Polizia Nazionalak eta Guardia Zibilak zer harreman duten beraien artean.

Estatutuaren 17. artikulua Ertzaintza ulertzen du polizia integral bezala eta ardura osoak ditu kontu hauetan. Eta Estatuak, momentu honetan behintzat eta iragan hurbilean ere, ez du ez Estatua errespetatzen, ezta ere Ertzaintzaren egitekoa. Hori da egia borobila, gure ustetan.

Bestetik, nos vamos aclarando un poco más. Voy a hacer uso de la intervención del señor Pastor, pero el alegato que hacía solicitando respeto a la posición política, desde luego, sirve también para medir y considerar políticamente lo que en el pasado, en el más cercano y en el más lejano, en este país ha ocurrido con la lucha antiterrorista, cómo se ha utilizado políticamente y partidistamente esa lucha antiterrorista.

Hoy hay un cambio, hay una invitación al PNV que considerar. Pero normalmente, con el tema de la lucha antiterrorista, cuando ustedes dos (PP y PSOE), estando de acuerdo en su estrategia, diferían en algo y empezaba una lucha encarnizada entre ustedes, lo que sí nos consta al Partido Nacionalista Vasco es que los dos se ponían de acuerdo para zumbiar al Partido Nacionalista Vasco. Se ponían siempre de acuerdo.

Y el pacto antiterrorista de diciembre del 2000 es un fiel ejemplo de eso. Es un pacto político, y léase-lo. Y el Pacto de Ajuria Enea, de pacificación y normalización, tiene un desarrollo político, y también puede usted coger los párrafos en los que se habla del contencioso político y del conflicto político. Es un pacto de normalización política y de pacificación el de Ajuria Enea.

Por supuesto que también luchaba contra la violencia y el terrorismo, pero eso no le da a usted pábulo para decir al resto del espectro político que hay que comulgar con la idea que el Partido Popular tiene sobre esta materia. Ajuria Enea era una mesa de consenso. Por lo tanto, nos vamos aclarando.

Cuando un ministro pone en cuestión la posición política del hoy candidato a la presidencia del Gobierno, que está articulando su nueva mayoría, el Partido Socialista se resiente, porque es un cuestionamiento ante todas las cancillerías de Europa. ¿Y el Partido Nacionalista Vasco puede decir algo de lo que ha sido en el pasado el cuestionamiento de la posición del Partido Nacionalista Vasco a favor de todos los derechos humanos y en contra de la violencia y el terrorismo? Tenemos capítulos y capítulos para desarrollar, pero no es el momento del descargo.

Por lo tanto, y para terminar, reitero que, más allá de las confianzas o desconfianzas políticas, si el Gobierno español en el terreno operativo quiere que las instituciones vascas, entre ellas la Ertzaintza como policía integral, también puedan trabajar en la lucha

venga con las relaciones existentes actualmente entre la Policía Nacional y la Guardia Civil.

El artículo 17 del Estatuto establece que la Ertzaintza es una policía integral y que tiene todas las competencias en su ámbito. El Estado, en la actualidad y también en el pasado reciente, no respeta el Estatuto, ni la función de la Ertzaintza. Esa es la pura verdad, en nuestra opinión.

Por otra parte, ari gara gauzak gehixeago argitzen. Pastor jaunaren mintzaldiari helduko diot, baina jarrera politikoa errespetatu zedila eskatuz erabiltzen zuten arrazoibidea baliagarria da politikoki neurtzeko eta epaitzeko iraganean, bai iragan hurbilean eta baita aspaldikoan ere, zer gertatu den herri honetan borroka antiterroristarekin, nola erabili den politikoki alderdikieriaz borroka antiterrorista hori.

Gaur bada aldaketa bat, gonbita egiten zaio EAJri gogoeta egin dezan. Baina, normalean, borroka antiterroristaren gai honetan, zuek biok (PP eta PSOE) hari buruzko estrategian ados egon arren, desadostasunen bat izaten zenuenean eta zuen arteko ika-mika garratza hasten zenean, Euzko Alderdi Jeltzalean beti jakin dugu bat egingo zenuela Euzko Alderdi Jeltzaleari egurra emateko orduan. Beti ipintzen zineten ados.

Eta 2000ko abenduko itun antiterrorista da horren adibide argienetakoa. Itun politiko bat da, eta irakur ezazu. Eta Ajuria Eneko Itunak, Euskadi Normaltzeko eta Bakeratzekoak, badu eduki politiko bat eta, bide batez, har ditzakezu arazo politikoa eta gatazka politikoa aipatzen dituzten pasarteak ere. Euskadi politikoki normaltzeko eta bakeratzeko ituna da Ajuria Enekoa.

Noski, indarkeriaren eta terrorismoaren aurka borroka egitea ere proposatzen zuen, baina horrek ez dizu eskubiderik ematen bestelako ikuspegi politiko dutenei esateko Alderdi Popularrak gai horretan dituen ikuspuntuak onartu egin behar direla. Adostasun-mahaia zen Ajuria Enekoa. Beraz, ari gara gauzak argitzen.

Ministro batek zalantzan ipintzen duenean gaur egun gobernuburu-gai denaren ikuspuntu politikoa, gehiengo berri bat eratu nahian ari denean hura, Alderdi Sozialista mindu egiten da, Europako kantzilertza guztien aurrean jaulkitako zalantza delako. Eta Euzko Alderdi Jeltzaleak esan ote dezake zerbait iraganean Euzko Alderdi Jeltzalearen ikuspuntua, giza eskubide guztien aldekoa eta indarkeria eta terrorismoaren aurkakoa, zalantzan ipini izanaren inguruan? Atalak eta atalak dauzkagu azaltzeko, baina ez da hustuketa egiteko abagunea.

Beraz, eta amaitzeko, berriro esango dut ezen, konfiantzak eta konfiantza-gabeziak alde batera utzita, Espainiako Gobernuak nahi badu alor operatiboan euskal erakundeek ere, eta haien artean Ertzaintzak, polizia integrala delako, terrorismo jihadistaren aur-

contra el terrorismo yihadista, hay que reconocer a la Ertzaintza como policía integral y que pueda tener acceso directo al Centro de Inteligencia contra el Terrorismo y el Crimen Organizado, que es una institución nueva en la que puede participar perfectamente, y que pueda tener acceso a la información de la Interpol, Europol y Eurojust, que pueda acceder directamente.

¿Por qué no accede? Porque el Partido Popular, el Gobierno español, ha vetado esa posibilidad. Y, por lo tanto, a partir de ahí los textos son textos, pero léanse los preámbulos de los acuerdos o supuestos acuerdos antiyihadistas, que descansan en otro preámbulo o en otro acuerdo, que es el de la lucha contra el terrorismo y por las libertades, de diciembre del 2000, donde en el preámbulo se fija el objetivo político, y es Partido Nacionalista Vasco y Eusko Alkartasuna, y se habla también de la lucha contra el terrorismo.

Y se habla también de un modelo y una definición concreta de lo que tiene que ser la política penitenciaria, por ejemplo –léaselo–, una política penitenciaria concebida como una lucha contraterrorista, de persecución. Eso está escrito, lo escribieron ustedes. Esa es la historia también.

LEHENDAKARIAK: Eskerrik asko, Egibar jauna.

Eztabaida amaituta, bototara jarriko dugu Euskal Talde Popularrak, Euskal Sozialistek eta Mistoa-UPyDk sinatu duten erdibideko zuzenketa. Bozkatu dezakegu. *(Geldiunea)*

Bozketa eginda, hauxe izan da emaitza: emandako botoak, 73; aldekoak, 26; aurkakoak, 47; zuriak, 0; abstentzioak, 0.

LEHENDAKARIAK: Ondorioz, ez da onartu erdibideko zuzenketa.

Gai-zerrendako laugarren puntua: "Mistoa-UPyD legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena, IRPH interes-tipoa berehala indargabezteari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena".

Proposamena egin duen taldearen txanda: Mistoa-UPyD. Maneiro jauna, zurea da hitza ekimena aurkeztu eta aldezteko.

MANEIRO LABAYEN jaunak: Gracias, presidenta.

Es difícilmente separable la crisis económica y sus efectos provocados en miles de ciudadanos del cúmulo de abusos bancarios y financieros que miles de ciudadanos han tenido que sufrir durante los últimos años.

Sin embargo, no hay mal que por bien no venga, y es posible que únicamente como consecuencia

kako borrokan lan egin dezaten, aitortu behar da Ertzaintza polizia integrala dela eta irismen zuzena izan behar du Terrorismoaren eta Krimen Antolatuen aurkako Inteligentzia Zentrora, erakunde berri honetan parte har dezakeelako inolako eragozpenik gabe, eta izan irismena izan behar du Interpol, Europol eta Eurojusten informazioetara, irismen zuzena izan behar du.

Zergatik ez du irismenik? Alderdi Popularrak, Espainiako Gobernuak, betoa jarri diolako aukera horri. Eta beraz, hortik aurrera, testuak testu izango dira, baina irakur itzazue yihadismoaren aurkako itunen edo itun ustekoen hitzurreak, beste hitzurre edo akordio batera bideratuko zaituztenak, alegia, terrorismoaren aurkako eta askatasunen aldeko borrokarako itunera, 2000ko abendukora, non hitzurrean jomuga politikoa Euzko Alderdi Jeltzalean eta Eusko Alkartasunean ezartzen baita, eta han ere terrorismoaren aurkako borroka zen gaia.

Eta, bide batez, hitz egiten da kartzela-politikaren eredu eta definizio zehatz bati buruz, esate baterako –irakur ezazu, bai–, eta aipatzen da terrorismoaren aurkako borroka helburutzat duen kartzela-politika, pertsekuziozkoa. Idatzita dago, zuek idatzi zenuten. Hori ere historia da.

La **PRESIDENTA:** Muchas gracias, señor Egibar.

